

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

61

1508/2021 EBAZPENA, abenduaren 14koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Maite Esnaola Albizu andrea izendatu den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko buru (Abdomeneko Erradiologia Arloa) aldi baterako, lau urte luzagarri.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentearen martxoaren 31ko 362 /2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Burua (Abdomeneko Erradiologia Arloa) lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko apirilaren 23ko EHAA 79. zk., eta 2021eko apirilaren 29ko BOE 102. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Maite Esnaola Albizu andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko buru (Abdomeneko Erradiologia Arloa).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Maite Esnaola Albizu andrea izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko buru (Abdomeneko Erradiologia Arloa) aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2021eko abenduaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESleri ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2022ko urtarrilaren 7a, ostirala

Donostia, 2021eko abenduaren 14a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.